



HIRIAK (2.zatia)

Gutxienez 7 atera behar duzu gainditzeko ariketa hau

Ipini gauza bakoitza dagokion lekuan: bizitegi-auzoa, merkataritzagunea, erdigunea edo CBD, garraiorako gunea, industrialdea eta zerbitzu-eremua, eta kultura-eremua.

Eraikin industrialak biltzen diren zonaldea, errepideetatik gertu dagoena.

(1).....

Dendak, hipermerkatuak, jatetxeak eta beste biltzen diren zonaldea, kanpoaldean egoten dena.

(2).....

Etxebizitzak eta biztanleentzako oinarrizko zerbitzuak dituen zonaldea.

(3).....

Museo, erakustareto edota erainkin historiko asko dauden zonaldea.

(4).....

Tren-geltokiak, autobus-geltokiak, aireportuak eta abar biltzen diren zonaldea.

(5).....

Erakunderik garrantzitsuenak, enpresa handien egoitzak, saltoki eksklusiboak eta abar biltzen diren zonaldea.

(6).....



HIRITARTZEA

Irakurri eta markatu aukera zuzena ala okerra den

Gaur egun, hiritartze-prozesua biziagoa da gutxiago garatutako herrialdeetan.	(7).....
Hiritartze-prozesuaren ezaugarri bat megahirien beherakada da.	(8).....
Eremu bat hiritarturik dagoela esan dezakegu baldin eta haren biztanleriaren gehiengo landa-biztanleria bada.	(9).....
Gaur egun, hiritartzearen hazkundea handiagoa da gutxiago garatutako herrialdeetan herrialde garatueta baino.	(10).....
Herrialde garatuak industrializazio-prozesuarekin batera hasi ziren hiritartzen.	(11).....
Megahiriak hamar milioi biztanle baino gehiagoko hiri-aglomerazioak dira.	(12).....

HIRIAK

Hiriéi buruzko esaldi hautetatik aukera zuzena ala okerra diren

Ekonomiagune eta politikagunerik handienak hirietatik kanpo daude.

(13).....

Berrikuntza-zentro nagusiak, edozer arlokoak izanik ere, hirietan kokatzen dira.

(14).....

Hiriak hiri-sareak osatzen dituzte.

(15).....

Landa-eremuak garraio-sareen gune banatzaileak dira.

(16).....

Munduko hiri-sarea hierarkia baten arabera antolatzen da.

(17).....

Hiri globalek garrantzi handiagoa dute hiri mundialek baino.

(18).....



Paris eta Londres dira Europako hiri global nagusiak.

(19).....

Herrialde bereko hirien artean ez da hierarkiarik ezartzen.

(20).....

Bete hutsuneak, hitz bakoitza bere tokian idatziz

hiri	hirigunea	hiri-eremu	hiri barreiatu	hiritartze	garatuak	industrializazio
gainditzin	landa-eremu	hiritartua	hiri inguruko	gunea	% 80tik	bizileku
% 46tik	Suspertzen					

- Biztanle kopuru handia duen eta lurzorua erabilera artifizialak nagusi diren lurraldeari (21)..... deritzo.
- Hiri eremuan dagoen herri motari (22)..... deritzo, eta haren funtzio guztien artean (23)..... -funtzioa da garrantzitsua.
- Hiri-eremu baten gune nagusia (24)..... da. Hirigunearen inguruan (25)..... dago, eta , azken horren inguruan, (26)..... .
- Eremu hiritartu jarraitua eta trinkoa izan beharrean, landa-eremuak tartekatuta dauzkan hiriari (27)..... deritzo.
- Hiri-eremuetako biztanleriak gora egiten baldin badu, eta landa-biztanleriak behera, (28).....-prozesu bat gertatu dela esaten dugu. Herrialde (29)..... (30).....-prozesuarekin batera hasi ziren hiritartzen. Gaur egun, era horretako herrialdeetan, biztanleria osoaren (31)..... gora bizi da hirietan.
- (32)..... eta garatzen hasi diren herrialdeak herrialde garatuek baino geroago hasi dute hiritartze-prozesua, baina haien hazkunde kopuruek askogatik (33)..... dituzte herrialde garatuenak. Garatzen ari diren herrialdeetan, biztanleria osoaren (34)..... gora bizi da hirietan.



Bete hutsuneak, hitz bakoitza bere tokian idatziz

Valentzia	irregularra	hiri-sare	zirkulazio	funtzio nagusiaren	hierarkia
hiri inguruko zonaldea		marjinaltasun	metropoli	radiozentrikoa	
hiri mundial edo global		Bartzelona	hiriguneak	erdigune historikoa	eskalan
planoak	Cádiz				

- Hiri bat modu eskematikoan irudikatzeko, (35)..... erabiltzen ditugu. Azken horietan, (36)..... ageri dira bide-sarea, eraikinak, eta herriko veste elementu batzuk. Herri baten planoak hiru motatakoa izan daitezke: (37)....., erregularra eta (38)..... .
- Hirietan zenbait zonalde bereiz daitezke (39)..... eta bilakaera historikoaren arabera. Bilakaera historikoari erreparatuz gero, hiru zonalde bereiziko ditugu: (40)..... , zabalgunak eta kanpoaldea edo (41)..... .
- Hiriek harremanak dituzte elkarrekin, eta munduko (42)..... batosatzen dute, (43)..... bat duena. Hierarkia horren arabera, (44)..... direlakoak dira sare horren buru. Herrialde baten mugen barruan ere badago hierarkia bat. Hierarkia horren baitan, honela antolatzen dira herriak, garrantzi gehien duenetik garrantzi gutxien duenera: (45)..... nazionalak, eskualdeko (46)..... eta hiri txikiagoak.
- Espainiako hirietan, hierarkia hau ezar dezakegu: Madril eta (47)..... hiri globalak; hiri nazionalak, (48)..... adibidez; eskualdeetako hiriguneak, (49)..... , esaterako; probintzia-hiriburuak eta hiri txikiak.
- Hiriek arazo zehatzak dituzte, hala nola kutsadura, (50).....-arazoak eta (51).....-arazoak.